

NESKA-MUTIL ALERGIKOAK ARRISKU HANDIEN ERAGINPEAN JARTZEN DIRA ETXETIK KANPO JATEN DUTENEAN

Zer da elikagaiekiko alergia eta nori eragiten dio?

Elikagai bat ukitu, jan edo inhalatzean pertsona batek kontrako erreakzioa duenean gertatzen da elikagaiekiko alergia. Erreakzio hori arina (erupzioak, urtikaria, azkura, eztula, beherakoa edo goragalea) edo larria zein oso larria izan daiteke (arnasa hartzeko arazoak, asma, hipotentsioa, bularraldeko zapalketa, palpitazioak edo zorabioak, bai eta heriotza arriskua duen shock anafilaktikoa ere).

Alergia eragiten duten produktu-motei dagokionez, datuak adin taldearen edo eremu geografikoaren arabera aldatzen badira ere, **Espainiako neska-mutilen artean arrautza eta behi-esnea** dira alergia gehien sortarazten duten elikagaiak eta haien ondotik **arrainak** (alergia hau oso iraunkorra da eta helduengan maiz aurkituko dugu). Elikagaiekiko alergiak dituzten 5 urtetik beherako haurrengan frutek eragindako erreakzioak %11 dira eta laugarren postuan dago, arrautzek, esneak eta arrainek eragindakoen atzetik, eta 5 urtetik gorakoen artean, aldiz, frutak eragiten ditu alergia gehienak, izan ere elikagaiekiko alergia guztietan %37 frutak sorrarazten baititu.

Zertan jarri behar dut arreta?



Ondoko zerrendan 2220/2004 Errege Dekretuaren arabera halabeharrez adierazi behar diren 14 alergenoren daude: **Glutena** duten zerealak eta horietatik eratorritako produktuak, **Krustazeoak** eta krustazeoekin egindako produktuak, **Arrautzak** eta arrautzekin egindako produktuak, **Arraina** eta arrainekin egindako produktuak, **Kakahueteak** eta kakahuetearekin egindako produktuak, **Soja** eta soja daukaten produktuak, **Esnea** eta haren eratorriak (laktosa barne), **Fruitu oskoldunak** (almendrak, hurrak, intxaurrak, anakardoak, pakanak, Para gaztainak, pistatxoak, makadamia intxaurrak, Australia intxaurrak eta eratorritako produktuak), **Apiak** eta haren eratorriak, **Ziapiek** eta haren eratorriak, **Sesamo-haziak** eta sesamo-haziak dituzten produktuak, **Anhidrido sulfurosoa** eta **Sulfitoak**, 10 mg/kg-ko edo 10 mg/l-ko kontzentrazioa gaindituz gero SO₂ gisa ageri da, **Eskuhoriak** eta **Moluskuak** edo moluskuak dituzten produktuak.

NESKA-MUTIL ALERGIKOAK ARRISKU HANDIEN ERAGINPEAN JARTZEN DIRA ETXETIK KANPO JATEN DUTENEAN

Zer egin dezaket informazioa jasotzeko?

Elikagaiekiko alergia eta anafilaxiari buruzko Europako Adierazpenean **EAACIk** horrela dio: Europako Batzordeak onartzen du 10 erreakzio alergiko larrietatik 7 kasuetan jendeak etxetik kanpo jaten duenean gertatu ohi direla. “Erreakzio horiek saihesteko –**AEPNAA** Elkarteak lehendakariak Pilar Hernandezek dioenez- ezinbestekoa da alergia nozitzen duenak bere osasuna arriskuan jar ditzaketen elikagaietan dauden substantziei buruzko informazioa edukitzea. Horrela bada, araua behar-beharrezkoa da alergia nozitzen dutenen osasuna zaintzeko, batzuetan bizitza babesteko ere”, esanez amaitzen du.

Horrenbestez, elikagaiekiko alergiaren bat dutenek idatzizko informazioa eska dezakete sukaldaritza guneetan, 2011ko abenduan indarrean sartu zen EBko 1169/2011ko araudiaren arabera, eta alergia-eragileei dagokionez, egokitzeko 3 urte igaro eta gero, derrigor betebeharrekoa dena Espainia osoan zehar 2014ko abenduaren 13tik aurrera.

Araudi honek elikagai ontziratutako edo ontziratutako gabeak eskaintzen dituzten establezimendu guztiei eragiten die, hala nola ostalaritza, sukaldaritza, ospitale, ikastetxe, jangela eta xehakako denda eta saltokiak (okindegiak, harategiak, e.a.), besteak beste.

Informazioa argia izango da eta ostalaritza zein sukaldaritza langileentzat eskuragarri egongo da, horiek erantzun behar baitiote derrigor adierazi beharreko 14 alergenoren horietan alergia-eragile batekiko erreakzioa duen bezeroaren eskakizunari.

2015eko otsailean onartu zen dekretuaren arabera, elikagai ontziratuen edo erosteko unean ontziratzen direnen elikagai-informazioa eman behar da, artikuluan adierazten denez, elikagaiekiko alergiaren gertaera gehienetan jatorria elikagai horietan bertan baitago.

AEPNAA elkarteak araudi hori positiboa dela deritzo, zuzen erabiltzen bada, elikagaiekiko alergiadunek beren osasuna babesteko eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoa duten informazioa izango baitute ostalaritza, sukaldaritza, jangela zein ospitaletan, besteak beste, eta hori orain arte hemen ez zen derrigorrezkoa.

AEPNAA elkarteak, pazienteen elkarten Batzordeko kidea izaki, **EAACI** akademiak sustatutako kanpainaren alde egiten du, bai eta Europako Adierazpen Publikoa izenekoaren alde ere, bertan Europako eta estatuko arduradun politiko eta legegileei deialdi bat egiten zaie sentsibilizazio jarduerak gauzatzeko, larrialdiko tratamenduak errazago lortzeko, allergien alorrean ikertzeko baliabide gehiago izateko, bai eta elikagaien etiketetan neurri zorrotzagoak ezartzeko ere eskatuz.

Iturriak

SEICAP (Espainiako Alergologia, Immunologia Klinikoko eta Asma Pediatrikoko Sozietatea)

EAACI (Alergia eta Immunologiako Europako Akademia)

AEPNAA (Elikagai eta latexaren alergia dunen Espainiako Elkarteak)



<http://www.eaaci.org>



<http://www.seicap.es>



<http://www.aepnaa.org>